



ATE IREKIEN JARDUNALDIA

INTERPRETAZIOA: JAZZA

Nori zuzenduak?

Jazz interpretazioan Graduko ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten ikasleei

Sarrera probak 2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Orientazio Jardunaldi honek bi atal ezberdin izango ditu eta erabat **online** egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2021eko martxoaren 21ean** amaituko da.

Jardunaldien helburua

Jazz interpretazioan Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Izena ematen dutenek esteka bat jasoko dute online saio bakoitzaren bezperan.

Jazz jardunaldiei buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Javier Juanco Jazz departamentuko buruarekin:
fjuanco@musikene.eus

Jardunaldiaren egitura

Bilera informatibo orokorra

Martxoak 26, ostirala, 15.00etan

Ordu beteko bilera informatiboan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikenek** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak.

Espezialitateko irakasleekin saioak

- Graduko ikasketetarako sarrera probetan eskatzen den mailari eta erreperitorio egokiari buruzko aholkuak
- Instrumentu probaren inguruko orientazio zehatza.
- Irakasleekin saio praktikoa.
- Irakasle bakoitzaren eskutik arreta pertsonalizatua
- Topaketa bakoitzaren iraupena: ordu bete

Martxoak 26, ostirala

16.30: José Luis GÁMEZ, gitarra elektrikoa

17.00: Jo KRAUSE, bateria

Carlos MARTÍN, tronboia

17.30: Chris KASE, tronpeta

Victor MERLO, baxu elektrikoa

18.00: Mikel ANDUEZA, saxofoia

Martxoak 27, larunbata

10.30: Deborah CARTER, ahotsa

Martxoak 29, astelehena

13.30: Gonzalo TEJADA, kontrabaxua

Martxoak 31, asteazkena

11.00: Iñaki SALVADOR, pianoa

Izena ematen dutenek izen-emate orrian adierazitako espezialitateko saioan parte hartu ahal izango du.